

## 2021ean erregistratutako langabezia

2021ean zehar LANBIDEko bulegoetan 6.928 pertsona langabe gutxiago erregistratu dira, murrizketa balore erlatiboetan % 2,9koa izan da. 233.984 langabe ezberdin egon dira urtean zehar.

### • S E X U A

Azken urtean langabezian dauden erregistratutako pertsona kopurua bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean murriztu egin da. Lehenengoan artean % 4,1 murriztu da eta bigarrenengoan artean % 1,8 (108.159 gizonezko erregistratu dira urtean zehar eta 125.825 emakumezko). Gaur egun langabeen % 53,8 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekonferentzia ahalmen handiago erakusten ari da.

### • A D I N A

Azken urte honetan langabetu kopurua adin tarte guztietan murriztu da, 55 urte gorakoan artean izan ezik (4.091 langabe gehiago, % 9,4ko hazkundea). 25-34 urte artekoen artean murriztu da gehien (-% 8,7) eta gutxien 45-54 adin tartean (-% 1,6). Langabeen % 43,1ak 44 urte baino gutxiago ditu, % 33,6ak 35 urte baino gutxiago ditu eta gainontzeko % 23,3ak 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

### • J A R D U E R A E K O N O M I K O A

2021ean zehar langabetu kopurua jarduera sektore guztietan murriztu da, lehen sektorean izan ezik (+% 2,1). Gehien industria sektorean murriztu da (-% 8,5) eta gutxien zerbitzu sektorean (-% 3,1). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 5,1 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia jaitsiera handiena izan duen jarduera ostalaritza izan da 2.778 langabetu gutxiagorekin. Murrizketa nabarmenak izan dituzten beste jarduerak ondorengoak izan dira: manufaktura-industria (-2.462) eta hezkuntza (-989). 2021ean langabezia osasun jardueretan (+882) eta Administrazio Publikoan (+193) hazi da gehien.

### • L A N G A B E Z I A R E N I R A U P E N A

Urte honetan, epe laburreko langabetu kopurua 19.562 pertsonatan murriztu da eta epe luze-koa 12.634 pertsonatan hazi. Balore erlatiboetan, epe luze-ko langabetuen kopuruaren hazkundea % 17,1ekoa izan da eta epe laburreko langabeen murrizketa % 11,7koa.

### • L A N G A B E T U E N K O K A P E N G E O G R A F I K O A

Azken urtean langabetu kopurua Bizkaian % 1,7 murriztu da (-2.285 pertsona), Gipuzkoan % 2,5 (-1.682 pertsona) eta Araban % 7,1 (-2.960 pertsona).

Hiriburuak aztertuta, Vitoria-Gasteizen murriztu da gehien langabetu kopurua balore erlatiboetan, % 2,4 (-752 pertsona). Donostian % 2,0 murriztu da langabezia (-326 pertsona) eta Bilbon % 1,5 (-641 pertsona). Beste eskualde hauetan nabarmen egin du behera langabetu kopuruak 2021an: Durangaldea (-472), Gobela (-350) eta Ezker Eskualdea (-345).

## 2021ean erregistratutako langabezia

### • LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2021ean 75.493 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko urtean baino 8.508 langabe gutxiagok. Langabeen % 32,3k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 49.780 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren arabeko prestazioa, hau da, langabeen % 21,3 dira horiek. 25.713 langabek (% 11,0), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute.

Aurreko urtearekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasak 2.6 puntu murriztu da.

### • IKASKETA MAILA

Langabeen % 55,9k (130.859 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 4.690 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 3,5 murriztu da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,6 dira. Talde horretan % 5,5 murriztu da langabezia azken urtean, gehien murriztu den taldea izanik.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 46.448 dira, hau da, langabeen % 19,9. Talde hau 2021ean zehar % 0,1 murriztu da, gutxien murriztu den taldea izanik.

Azkenik, langabeen % 14,6k (34.183 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau dutenen artean % 2,5 murriztu da langabetu kopurua.

### • JATORRIA

Langabeen % 16,1 (37.774 lagun), atzerritarrak dira. 2020arekin alderatuta, atzerritar langabetu kopurua % 3,5 murriztu da, eta bertakoak, aldiz, % 2,8.

Langabe atzerritarren % 31,6a Latinoamerikakoak dira, % 28,0a Afrika iparraldetik datoz, % 17,9a Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,7a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,9a, azkenik, Asiatik.

# 2021ean erregistratutako langabezia

## Lan-eskatzaile langabeak 2021ean

	2021	2020	Saldoa	Bil %
<b>SEXUA:</b>				
GIZONEZKOAK	108.159	112.727	-4.568	-4,1%
EMAKUMEZKOAK	125.825	128.185	-2.360	-1,8%
<b>25 URTEZ AZPIKOAK:</b>				
GUZTIRA	27.614	28.387	-773	-2,7%
GIZONEZKOAK	14.894	15.027	-133	-0,9%
EMAKUMEZKOAK	12.720	13.360	-640	-4,8%
<b>25-44 URTE:</b>				
GUZTIRA	105.540	114.942	-9.402	-8,2%
GIZONEZKOAK	47.659	53.014	-5.355	-10,1%
EMAKUMEZKOAK	57.881	61.928	-4.047	-6,5%
<b>45 URTEZ GORAKOAK:</b>				
GUZTIRA	100.830	97.583	3.247	3,3%
GIZONEZKOAK	45.606	44.686	920	2,1%
EMAKUMEZKOAK	55.224	52.897	2.327	4,4%
<b>SEKTOREA:</b>				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	4.590	4.496	94	2,1%
INDUSTRIA	26.695	29.158	-2.463	-8,4%
ERAIKUNTZA	14.325	15.125	-800	-5,3%
ZERBITZUAK	160.413	165.531	-5.118	-3,1%
AURREKO ENPLEGURIK GABE	27.961	26.602	1.359	5,1%
<b>LURRALDE HISTORIKOA:</b>				
ARABA	38.966	41.926	-2.960	-7,1%
BIZKAIA	65.703	67.385	-1.682	-2,5%
GIPUZKOA	129.314	131.599	-2.285	-1,7%
EAE	233.984	240.912	-6.928	-2,9%